

Erreka bila

Idoia Fraile Ugalde



Zumaiako Udala

*en skara
txanplan*

Erreka bila

Idoia Fraile Ugalde

Julene Azpeitia 30. ipuin lehiaketa

2017

1. saria

2017ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Idoia Fraile Ugalde (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

*Berako Kristinari,
zure begietako errekek
aspaldian agorturik nuen hitza
ur azalean dir-dir paratzeagatik*

Minberatuak nituen oinak. Ez zen harritzekoa, aspaldian ez nuen hain ibilera luzerik egin. Iruzki-alde auzoa gibelean utzi eta, Izu mendi kaskoa hartzerako, orpoak zeharo gorriturik nituen; galtzerdiak zulaturik baintuen, hortxe, orpo pare horretan, hain juxtu. Nik, horrela ibili bertze erremediorik ez nuen, artean bederatzi urte bertzerik ez eta, beti neskame-lanetan ibilki, inork ez baitzidan galtzerdi-konpontzen irakatsi, ez Elgorriagan, amaxirenean, ezta Arantzako Orunen ere, amaxi gaixotuz geroztik neskame ibilitako bordan. Horregatik nituen hatz muturretan eta orpo kontretan zulo-zulo eginak, aspaldian bere horrela zeudenak, txapinak konponduko zizkidan inor, alboan egoki ez eta. Abarkek beraz, min ematen zidaten ibileran, orpoetan min.

Ongi gogoan dut sei urte nituela Elgorriko amaxik, artean sasoiko zela, botoiak josten nola irakatsi zidan: haria zulorik zulo, sartu-aterean ibili, eta zibota bezala biraka errematatzen. Gero, korapiloa egin, aitzurrak hartu, kaxk! moztu, eta kito!, botoia nahi zuen lekuan xixt batean ipintzen zuen, gure herrira behin etorritako titiriteroak hariari tira eta, panpina nahi zuen lekura eramaten zuen bezala. Berez, botoiak jostea ez zen lan zaila. Gerora, neskato lanetan zailagoak ikasi behar izan ditut. Eta, egia erran, gaur arte, orpoetan hainbertzeko mina sentitu arte, ez dut sekula pentsatu amaxik txapinak konpontzen zergatik ez ote zidan irakatsi. Gazteegia nintzela pentsatuko ote zuen? Edo agian, artrosiak jotako hatz okertuez ezingo zidan lagundu? Kontua da, ordea, Izu gaina harrapatu eta Joxerekin maldan beheiti nindoala, bi baba handi sortu zitzaizkidalda orpo banatan, eta Aldura, jomuga, lekutan genuela oraindik. Nola erran nagusiari hankak errekatxo batean busti nahi nituela? Nola erregu erreka tofikiren bat sikiera aurkitzeko? Nola adierazi erreka zer zen niretzat? Min hartzen nuen; min, urrats bakoitzean. Ezin Oruneko gizonari segi. Ezin harrapatu haren itzala. Ezin nagusiari mesederik eska.

Nola eskatuko nion Luixaren senarrari mesede, Arantzatik Erreterria inguruko mendi alderaino ni laguntzera etorria bazen, orain, neskame-lanak egitera hara joan beharra nuelako! Izan ere, Luixaren ama zenduz geroztik –goian bego Mañuela zaharra– Orunen ez zen aparteko lanik niretzat. Eta, gerra ondorenean, gaztainak agortzean, zera, jatekoa eskas gurean ere, auzoan bezala, eta zenbaitetan gosea, gose latza, tripa-zorriak iluntzerako zimikoka, putzuko igelak trumilka irentsi bagenitu bezala; Oruneko lurrak malkar handikoak baitziren eta baratzeetarako beraz, arrunt eskasak. Hala, hango lanak akabatuta, buru-makur, Aldurara jotzea bertzerik ez zitzaidan gelditzen, Mendaur magalean ez zuten haboro nire beharrik eta, haientzat aho bat guttiago betetzeko! Zer egingen diogu, ba! Tokatzen denari heldu behar! Mundu honetan ez da bertzerik. Zer lan aginduko ote zidaten baina, etxalde berrian?

Nik, pentsamenduok nahasian nerabiltzan bitartean, Joxe tipi-tapa, bere mando-pauso seguruan, Izun beheiti zihoan. "Demontre! Alderik alde begiak itxita ere hemengo bidea asmaturen luke –nioen nirekiko–, ez al da nagusia adaxkaren batekin edo sikiera abarren batekin trabaturen? Ez al du laprast egingen? Ez al dit behinik sorik gibelerara egingen? Harrapa ezan, ba, Karmen!".

Baina, aldapan beheiti gure arteko alde, unetik unera are nabarmenagoa zen. Joan bazihoan bide-xendan beheiti, ezagun zituen onddo-puntuak begiratzeko ere astirik hartu gabe. Haren hurritz zuriko makilak, lurra jo eta, oihartzun egiten zuen niregana iristerako; eta zurkaitzak utzitako zuloek aldiz, nik zanpatzerako, hustutako kilker-zuloak ziruditen, kilkerrek anboliporruaren azpian ezkutatzeko aski denbora izaten baitzuten nire oina sumatu aitzin.

Aldapan beheitikoan hartzen nuen minik handiena ordea; min, pauso ttiki bakoitzean. Izun beheiti zizt eta zazt ari zitzaidan orpo gibela, okila nire oin ihartuan bertan, lotsagabe, zulo egiten ariko balitzait. Baina ezin nion menditarrari marmarrik atera, ez behintzat min hartzen nuelako eta erreka bazterrean oinak busti nahi nituelako! Hala, txintik atera gabe, gibelean utzi genituen lbintza, Karasuetako ataka eta, lzu bera ere bai. Gaitz erdi! Noizbait ibiltzeari utzi zion.

–Alajaina! Bada hemen sutarako egur franko! –erran zuen Bagolletako lepoan Artikutzari begira. Gizon bakarrak orga aise beteko luke hemen, alajainetan!

Eta gero besoak zabal-zabal egin eta arnasa sakon hartu zuen, siesta ondorenean kamiseta zuriaren azpitik hegoak zabaldu ohi zituen bezala. Bigarren aldiz arnasa hartu eta, zera gaineratu zuen:

–Hara! Haginak bazeuden hemen eta! Arantza inguruan akabo ditun, Ekaitza azpian bakan batzuk bertzerik ez ditun geratzen! Baina, ale bakar batzuk bertzerik ez!

Bizarra beltz-beltza zuen Joxek eta izerditan ari zen. Lepoko kateak dir-dir egiten zion alkandora urdinaren gainean, baina amaren oroigarri zuenez, lotarako ere ez zuen kentzen. Kokotsetik golkora izerdi tanta batek irrist egin zion, erreka-stoa iduri. Orduan, iparraldetik aire kolpe bat iritsi zen, ufada isil bat, eta une batez, hango hagin eta gorostiak astindu zituen. Joxeren txapel beltza, ez zen higitu ere egin, bere lekuan jarraitu zuen, goizean tapaturiko ile berak estaliz.

–Ño! Aire freskoa! Frantzi-iparra! Itsasoa ez da urrun, Aiako Harrien gibelaldean.

Halako batean, eskua sakelean sartu eta koadrozko mukizapia atera zuen:

–Katarro zikin hau, nolana-zi ez din honek alde egiten gero! Berriz ere preparatu beharko didan iruntzi-belar salda!

Handik segundo eskasera, bat-batean, zerbait otu balitzaio bezala, lepoa jiratu eta niri begira-begira paratu zen, harrituta, ikusten ninduen lehen aldia balu bezala.

–Arraioa! –erran zuen.

Eta oraindik niri begirik kendu gabe jarraitu zuen:

–Ezin zaidan buruan sartu, Karmen. Alduran, bizitzen jarri behar dun, eta Orunen Luixa eta biok bakarrik izanen gaitun.

Eta nik, buruaz baietz.

–Aitzinera begira, –solasean segi zuen– Luixari erran beharko zionat, zera, iruntzi-belarra prestatzeko. Izan ere, hirekin usatuak gaitun eta orain, komeriak! Ez zion bertzerik hemen, hi gabe moldatu beharko dinagu!

Ele hauek entzutean barrena lehertu zitzaidan. Ez nuen hitzik atera, isil-isilik gelditu nintzen. Ohartu gabe, une batez, ibiltzeari ere utzi nion. Baina, Joxeren gibeletik segi beharra nuen. Segitu, gelditu gaberik. Beldurrak astindu ninduen, ordea. Ez nekien zer heldu zitzaidan: Alduran nolako jendearekin topo eginen nuen, nola hartuko ninduten, errespetatua izanen nintzen, etxe berrian zein egiteko izanen nuen, ondoko gelan otorduak bakarrik egin beharko nituen, bakarrik lo, ohatzea arto-azalez edo artilez egin izanen nuen... Ez nekien halaber, zergatik nahi zuten ni han izatea, zer espero zuten niregandik, zergatik bereizi ote ninduten, juxtu ni, Gipuzkoaraino eramateko. Galdera bat bertzearen atarian.

Bagolletako lepoak bitan banatzen zuen nire mundu ttikia: Nafarroa batetik, Arizkun –sorterria–, Elgorriaga –amatxiren itzala– eta azkenik, Arantzako Orune, hegoaldera; eta bestetik, Gipuzkoa, ipar-mendebaldera kokatua nuen Errenteriako mendi aldea, parez pare nuena. Iragana eta etorkizuna berriro ere bidegurutzean. Berriro egoera berria zain. Ezezaguna. Eta bakarrik, munduan ni bertzerik, zetorkidana zetorkidala ere aitzinera egiteko.

Izan ere, bederatzi urte haietan ibili banenbilan, baina ez nekien nora. Ez nekien etorkizun hurbilean zer izanen nuen ere.

Orduan, soinekoaren muturraz sudurra igurtzi nuen eta ez tul bakar bat atera zitzaidan. Soineko ilun bat neraman soinean, arrea, baina ipingiek jatorrizko kolorea lapurtua ziotena dagoeneko. Egun hartan, bazirudien eguzki izpi guztiek urdintzen hasitako nire soineko hartan elkarrekin egin nahi zutela lo. Bero sentitzen nuen eta, soinekoaren itzalak ihes egiten zidan. Pagadia utzi eta belar ttipia erdibitzen zuen marra ilunaren gainean, tipi-tapa berdinean gindoazen biok, izerdi urez bidexka tarteka zipriztintzen genuela. Lepoan izerdi tanta sumatu nuen berriro eta, ile beltz luzeak hazkura eragiten zidan ukitzen zuen tokian. Horregatik, Luixak emandako sokatxo eskumuturretik hartu eta, ileak bil-bil egiteko unea zela erabaki nuen. Hala, Joxeren pauso-eran etenik eragin gabe, mototsean jaso nituen biloak, ama zenak egin ohi zuen gisa berean. Halako batean, adatsa kiribilduta nuela ohartu nintzen, kizkur-kizkur egina, nik ttipitan amari nire eskutxoez itzuli-mitzuli zorabiatzen nion moduan. Baina, izerdiak korapilatuko zizkidan noski, tximak, aita-amen mentxaz geroztik, ez bainekien zer zen esku arrotz baten fereka.

–Erne hemen suge zaharren batekin, suge-gorriek lepaka goxo hau arrunt gustuko dinat! –erran zuen Joxek idor, isiltasuna hautsiz.

Eta segidan gaineratu:

–Nahi dun lepoko abarka horiek neronek eramatea?

Aitzinean, lepotik zintzilik, abarka pare berria neraman eta, gibelean, bizkarretik zilintzan, beriz, Luixak fardelean bildutako amaren soinekoa. Une batez, berriro, eskua lepora eraman nuen eta, abarken korapiloa ongi ote zegoen ziurtatu nuen haiek galtzeko beldurrez. Mañuela zenaren erregalo nuen abarka pare berri-berria, eguzkiari nire golkotik dirdirka ari zitzaiona, urre kolorea erakutsiz, harro; izan ere, Mañuela Oruneko koarto ttipian ohatzetik zutitu ezinik gelditu zenean, zaharrak arrunt poliki eta kontu handiz zaindu nuela erran zion suhiari eta, hil aitzinetik Joxeri agindu zion, zatak pare Elizondotik niretzat ekartzeko: neurrikoa eta batez ere, berria, inork erabili

gabekoa. Bidean beraz, Mañuelaren abarkak lepoan paratuta, orbel hotsak ahitu eta, belardian aitzinera gindoazen, Joxe han eta ni hemen.

Orduan, bat-batean, Bagolleta gibelean eta ni ibilian pentsamenduan nindoala, Aiako Harrietatik gureganantz sai bikote bat bistatu nuen, hain segur ardi zaharren baten usainean zetorkeena. "Hori hegakera dotorea, gero! Hori gozamina hegan egin eta, mundua hor goitik zeinen ttiki den ikustea!" pentsatu nuen nire baitan. Ez nuen horretarako deusik behar: jadanik arre koloreko jantzia neure nuen eta, lepo luze-luzea ere bai, amatxik erraten zidanez hori aitarengandik jasotakoa. Amets egiteak, gainera, bideko nekea arintzen lagunduko zidan. Hala, une batez, besoak hegal bihurtu zitzaizkidan eta oinak, berriz, atzapar. Atzaparrak harrapari orok behar ditu, baina baita ni bezalako iragana dugunok ere; lanbrotutako iragana atzazal punta zorrotzez heldu, harrapatu, geure haragitan tinkatu eta sekula ez ahanzteko. Nola utziko nion iraganari ihes egiten sorlekuko oroitzapenak hain eskas banituen? Nola aita-amen erretratuak galdu? Irudimena lagun, izpiltzu koloreko soinekoaz Elutsako harkaitzean pausatu nintzen, Eskaserako bidegurutzean. Hegoak ezker-eskuin zabaldu, kordionistek bezala astindu eta, mando-euliak euri tantak bezala erortzen ikusi nituen ezker-eskuin besoetako hauspoetatik. Alajaina! Hori astinaldia gero! Bi minutu aski izan nituen Mendaur tontorrera iristeko. Han, Trinitate ermita eta, hari bueltaka Elgorriko amatxi eta ni, biok korrika, zirimolaka, barrezka, usadioak agintzen duen hiru itzuli eginez. Elgorriagatik igo ginen biok, behinola, tipi-tapa, ekainean egin ohi den erromeri egunean. Gero, bizkotxo puska bat eta bi txokolate pastil jan, eta arestiko bidetik, etxera itzuli ginen. Hori jakina, amatxi tronbosiak jo aitzin egin genuen, orain soinean daramadan arre koloreko soineko hau erosi berria nuela.

–Hire amari kamamila-loredun soineko eder bat erosi nionan behin, nahi dun hiretzat haren igual-iguala? –erran zidan amatxik behorra saldu zutenean.

Eta Doneztebeko erakusleiho aurrean ginela erantzun nion:

–Ez, nik bertze hura nahi dut, iluna, arre koloreko hori, erreka lohiarekin ez zikintzeko modukoa.

Baina egiaz nahi nahi, amaren berdina nahiago nuen. Izan ere, kamamila-loredun soinekoa hagitz polita zen, amaren igual-iguala, orain soinean daramadan hau baino dantzariago eta irristakorrago ere bai. Hitz bitan: hura jantzita pinpirinago nengokeen. Beldur nintzen ordea, amari gertatu bezala ez ote zitzaidan niri ere gertatuko: gorritzen hasi, pixkanaka soinekoa gorri koloreko bihurtzen eta, azkenerako, ene! petalo zuriak oro gorritzeraino. Arras gorri bilakatu baitzen amaren soinekoa: bai

petaloak eta baita erdiguneko borobil horia ere. Geroztik, soinekoak gorritzeari izugarrizko beldurra diot eta, nahiago dut arrea erosi. Ene bada, oraindik pentsatze hutsak nire onetatik ateratzen nau! Barnean daramat orduko mina. Barnean, amaren erretratu gordina. Baina amaren erretratuak hain eskasak izaki, Elgorriko amatxik erran zidan soinekoa amaren oroigarri gisa jasotzeko. Eta, orain, ni noan lekura nirekin joanen da beti. Nirekin eramanez dut munduz mundu bizkarrean paratuta, Luixak, Aldurako etxeoandreak, edo dena delakoak, fardel eginda.

Hala, Aldura bidean ibilian, bi soinekoak zilintzan daramatzat: amarena handitzen naizenerako, eta iluna, soinean daramadan hauxe, nire hegal ederron azpian, ez lohitzeko. Ea, ez dezadan horretaz gehiago pentsa, eta bizkor, hegaka has nadin berriro! Astindu itzan hegoak, Karmen! Zabala besoak eta auzi! Hoa goiti zerurantz...

Hegoak berriz ere zabaldu eta ziztu bizian segi nuen zuzen-zuzen Arizkongo nire sortetxeraino. Han, atariko lizarrean, egurrezko aulkian jarrita, aita-amak ikusi nituen, oraindik nire aiduru. Amari, bere adats ederra nire hatzen artean kiribildu nion eta, belarri gibelean pausatu; lehenik adatsa eta, gero potta. Aitari, masaila inguratu nion eta, bizarrak zizt! egin zidan, gero zait! Okila matelan habi egiten ari zitzaidala gogotu zitzaidan. Gero, belarri txokora zerbait xuxurlatu nion, isilean, barrideen artean inork ez zezan entzun zer erraten nion. Gordean. Amatxik Elgorriko ezkaratzean arto-aletzen ari ginela, aitortu baitzidan egia: auzokoren batek salatu zuela gure aita 1937an eta, horregatik jarri zutela erreketek hogeita bi baztandarrez osaturiko zerrenda beltzean haren izena: ANGEL MIKELARENA AIORTA, 30 urtekoa, sortzez Elgorriagakoa eta Arizkuneko bizi zena. Nik artean lau urte ez nuen.

Abenduko egun hartan atea jo zuen norbaitek, ez genuen bisitarik espero, baina. Nor ote ordu hartan? Auzokoren bat larri akaso? Benantziok okerrera egingo zuen? Edo eltze-konpontzailearen emaztea erditze-minetan? Berriro ere kax! kax!, oraingoan bortitzago. Amak patatak zuritzeari utzi zion. Aita supazterretik zutitu zen, zakar, eta nahi gabe laratzari balantza eragin zion. Gero, emazte haurdunari errezeloz begiratu zion. Ondoren, ate alderantz zuzendu zen.

–¡Abran la puerta! –intzirika ahots lodikote batek. Eta atean danbatekoka hasi zen aitak hesolak borraz sartzean ateratzen zuen soinu motz eta sarkorraz, baina konpas hautsia zuela, erritmoa galdua balu bezala.

–¡Abran la puerta de una vez o la vamos a romper! –beste ahots setako batek zorrotz.

–Erreketeak, hemen ditun! Heldu ditun! Nireak egin din! Akabo naun! –oihu egin zion aitak amari beldurrak ia ito beharrean.

Artean ez nekien espainolez solasean ongi, baina txapel gorrien erranak ongi ulertu nituen. Izan ere, gure auzoan, eltze-konpontzailearen bi alabak, jolasera gurera inguratzen ziren, eta Espainia aldetik iritsiak zirenez, hizkuntza hura ez nuen arrotz.

Gero, aita niregana inguratu eta, izugarri muxu potoloa eman zidan, marrubi zaporekoa, oraindik ere errekan gordea daukadana. Ondoren, serio-serio hitzok erran zizkidan:

–Izan hadi ausart, ttiki! Egin ezan beti aitzinerat! Errekako urak itsasoraino joaten ditun, ez diton sekulan gibelerat egiten! Entzun dun? Gogoan hartuko dun?

Eta amari sabela ferekatu zion, laztan biribilak egin zizkion zilborrean, aitzurkadek zimurtutako hatz zailduz.

Atea dardarka ari zen. Laster botako zuten.

–Zaindu itzan, Iñaxi! Zaindu itzan biak ongi, Karmentxu eta sabeleko ttikia ere bai, zin egingen didan? Eta, sabelekoari izena herorrek jar iezaion! Pentsa ezan izen politen bat honentzat ere!

Eta sabeletik eskua ez zuen kentzen biskarekin itsatsia balu bezala.

Bat-batean, ama utzi eta niregana hurreratuz zorrotz erran zidan:

–Sar hadi hortxe, hortxe barruan sar hadi Karmentxu, armairu zurian eta, ez txintik atera, gero. Deusik ere ez, e! Obedi iezadan! Azkar!

Ni, ilunpetan, arnas hartzeko ere beldur nintzen. Armairuaren zirikitutik aita borta zabaltzen ikusi nuen.

Zabaldu ordu begiak estali eta itsuturik utzi zuten. Gero, burnisareaz gibelean eskumuturrak lotu eta, arrastan atera zuten lau gizonen artean. Bertze hiru, sukaldean esperoan gelditu ziren.

–¡Maldito rojo! ¡Traidor! ¡Verás cómo acabas ahora! ¡Despídete, despídete de ella, porque no la vas a ver nunca más! –erran zuen ilegorriak.

Jendaila madarikatu hark gure sukalde barnean zer egiten zuen ez nuen ulertzen eta, gertatzen ari zenari ez nion batere itxura onik hartzen. Segidan, ongi ikusi nuen nola gure aita arrastan eraman zuten lau gizonen artean eskaileretan beheiti. Eskaileretan beheiti, arrastan aita, lau gizonen artean. Gero, buru egiten zuenak amari listua bota zion matrailean. Eta, euskaraz erran zion:

–Urdanga alaena! Nazionalista zerria! Ez zarete zuenarekin aterako! Franco bakarra dun hemengo legea! ¡Viva Franco!

Eta amari bilotik heldu zion.

Geroztik, ez dut aitarik ikusi eta, ama ere, erreka bihurtu zela erranen nuke.

Lau urte betetzear nituela alde egin zuten, nire ondotik alde, eta geroztik, munduan bakarrik utzi ninduten. Bakarrik, ni, munduaren erdian. Bakarrik, mundu zabalaren erdian.

Gertaera hura aitzin, behin, ongi gogoan dut, Elizondoko ikastolara eramango nindutela nola zin egin zidaten aita-amek baina, kaka-putza! Usteak erdia ustel! Horrelakorik niretzat behinik behin ez zen ailegatu.

–Lau urte betetzean Elizondoko ikastolara joango haiz, Karmen –erran zidan aitak lizar azpiko bankuan ilargiari so, hirurok geundela–. Materiala lortu dinagu eta, andereño xuxen eta zintzo bat ere bai, ezagutuko dun: Pilar Alba Loiarde goizuetarra. Arras goxoa dun eta jatorra...

Lau urte ordea, ez nekien zein egunetan betetzen nituen eta, beharbada, horregatik, sekula ez nuen Pilar izeneko inor ezagutu. Halaber, aita eta amaren hitz berriak ere ez zitzaidan sekula heldu.

Aitaren eta amaren oroitzapenak hain nituen eskas, hain lanbrotu, hain hegalaria, horren beldurra nuen, beldur latza, nituen pixarrak galdu edo ahazteko beldurra. Horregatik, nola edo hala, kontu behar nituen. Ez nuen ez inork, ez deusik ere, aita-amen oroitzapenak ebasterik nahi. Era berean, ongi ederki nekien zein zen horretarako erremedioa; hala, besta arratsaldeetan, etxeakoandreak baimena ematean, aitzaki-maitzaki neska kuadrilla plazan utzi eta, isilean, errekara jotzen nuen nik beti, erretratu bila: Elgorriagako erreka ttikira amatxirenean eta, Orune azpikora, gero, hura eritu ondorenean. Izan ere, harri zabal bana baitzuten erreka biek –amak arropak xahatzeko erabiltzen zuenaren tankerakoa– eta biek zuten landaretza berdea, goroldio usaina zeriena eta, gorritasunik batere gabekoa; ez baitzen ez iratze gorriak, ez sorgin erratzaren arrastorik ere, ez batean eta ez bestean. Hain juxtu horixe zen ur azalean dir-dir behar nuen erretratua: erreka gorri bihurtu aurreko ama lanean eta, aitaren azken hitza, errekako uretan blai, bizitzan aitzinera egin nezan aginduz.

–Hi Karmen, zertan ari haiz? Zergatik hago hain isilik gaur? Akiturik hago, ba? –erran zidan Joxek ez dakit zertan pentsatzen ari nintzela.

Gero, besoa luzatu eta zerbait erakutsi zidan:

–Ikazgileena dun borda hau, baso-mutilena. Lepoan ditun abarka horiek neronek eramaterik nahi? Paraje ederrak, eztala?

Egia! Bianditzeko bidean gindoazen eta ez nengoen bakarrik, Joxerekin baizik. Arantza gibelean utzia genuen eta, Aldura genuen jomuga. Non demontre ote Aldura delakoa? Non kristo ote? Aunitz falta ote zaigu iristeko? Izanen da inguru haietan errekarik? Orpoak ez ote zitzaizkidan leherturen hara iritsi aitzin?

–Orain, puska batean berdina dinagu, gero berriz goiti. Laster Bianditz gaina atzemango dinagu. Atsedean hartu nahi dun? –galdegin zidan nagusiak.

–Nahiago nuke errekastoren baten ondoan geldituko bagina, hanka-zolak bustitzeko –erran nion azkenik, lotsa guztiak gaindituz.

–Halaxe egingo dinagu, ba! –adierazi zidan baikor–. Orain, ez zekinat, ez zekinat, erreka non harrapatu beharra dugun; Eskas aldean bazeuden banaka batzuk, baina hortik bidea luzeago dun. Hobe dinagu Bianditzen barna joatea!

Eta geroxeago:

–Ea, emazkidan lepoko abarka horiek behingoz, neska, ekar itzan! Horrela akaso Bianditz tontorrera errazago ailegatuko haiz!

Eta Joxek, erran bezala, lepotik zintzilikatu zituen nire abarka berriak, Elizondoko feriatik ekarriak.

–To Karmen, –erran zidan orain egun batzuk nagusiak–. Hiretzat ekarri dizkinat. Gure ama bizi artean ongi zaindu dun eta, gure ama zenak eskatu zidanan hiretzako erregaloa.

Eta Joxek abarka pare berri-berria eskura eman zidan etxe hartatik alde egin baino hiru egun lehenago.

–Tira, proba itzan! Ikusi neurrikoak ote diren! Egoki ditun?

Ez nuen sekula abarka berririk eduki. Hatz ttikiekin lokarria eskuetan kiribildu eta usain egin nuen. Larru berriaren usaina zuen. Hura gozamina! Gero, larrua adabakiz betetako nire soinekoaren kontra igurtzi nuen riki-raka aitzin-gibel, ezkaratzeko zorua alanbrezko eskuilaz igurtzi, argizariz busti eta, zapiaz dir-dir uzten nuen bezala.

–Dirdira darie, errekak duen dirdira bera –atera zitzaidan barru-barrutik sekretua hautsi banu bezala.

Abarka berriak oinetan, begiak lurretik altxatzea ere kosta egiten zitzaidan, berriak duen dirdirari so, liluraren zurrunbiloan igeri, bihotza katagorri bihurtua nuela

jauzika. Ez nekien baina, horrelako egoeretakoz zein hitz ziren aproposak; ez nekien oparia nola eskertu; ez nekien etxeok niregatik egin zutena nola aitortu; ez nekien nola adierazi haien hutsa idor den latsa zela niretzat.

–Mila esker, Joxe eta Luixa! –erran nien agortzeaz den erreka sotil baten ahotsean. Oso onak izan zarete nirekin. Baina, arren, etorri tarteka ni ikustera! Alduratik Orunerako bidea ez bainuke bakarrik egiten jakinen. Ganen zarete?
–Lasai, ez hadi alferrik estutu, Karmen! –ihardetsi zidan Joxek, plaza gizonak izan ohi duten ahots patxadatsu eta irribarre kolorekoan. Francok Bizkaian eta Gipuzkoan errota itxi dizkin eta gipuzkoanoak Nafarroara etortzen ditun irin bila; Oiartzun, Errenteria... alde horretakoak, Iruki-aldera, etortzen ditun. Gurdia hartu eta Lino edo Sebastianekin honat etorri beharko dun, hik ere. Gainerakoan, ni Aldura ataritik maiz iraganen naun, baina gaueko lanak egitera. Orduan lo egongo haiz, baina hire berri izanen dinat. Hi Karmen, lasai, aditu dun?

Ez nion sekula Joxeri gaueko lanaz galdetu, banekien ongi aski kontrabandoaren gaia isilka kontu-eramatekoa zela eta, haurrek ezin zutela inola ere ahoa zabaldu deus galdetzeko. Luixak erakutsi zidan hori: hobe zela solas gutti egitea, ingurukoei gehiegi galdetzea baino.

Joxeren abarka berriak eskuetan, Luixa etorri zitzaidan agurtzeko tenorean:

–Ez itzan abarka berriak jantzi Aldura bistatu arte, e!, bertzenaz, zikinduko ditun eta. Aditzen? Hik bertzela, Karmen, etxeokandarearen errana zintzo bete ezan, hik hari egin iezaion kasu, Frantziskari, hark emango din-eta talo pusketaren bat, edo zeinek daki!, lanak zintzo arraio betetzen baditun tarteka magra pusketaren bat ere bai, akaso! Gerra ondoren honetan dena baitzion eskas... Egin iezaion kasu!

Eta amarena izandako kamamila-loredun soinekoa, fardelean bildu-bildu eginda paratu zidan.

–Bizkarretik zintzilik eraman beharko dun –argitu zidan emakumeak.

–Milesker, Luixa, ez zaituztet ahantziko –erantzun nien esplikatu ezin den min handi bat nuela barruan.

Pagadiak Joxerentzat ez dira isilak. Menditar orok, Joxek bezala, mila soinu entzuten ditu eta mila detaile ikusten. Are gehiago, gainera, bidea mando-bide bat bada. Handitzen naizenean mando-bide bat zapaldu bakoitzean, Joxe imajinatu

nahiko nuke egur-garraio; edo Joxe, Ximoneneko basa-mutilarekin bidean txistuka; edo zergatik, ez, Joxe, ilargirik gabeko arratsean, bizkarrean 30 kg farfail daramatzala. Zer egin erretratuak ez galtzeko?

Azkenean, arnasestuak ahitu dira. Hori nekea patarrean goiti. Sasoiko dago gero, Joxe. Arranopola! Bianditz gaina. Ez da gaur hemen ez haizerik, ez goibel bakar bat ere ageri. Mundua hemendik zabal. Mundua ireki. Mendi kasko honetatik mundua dena bat, ezerezean igeri eta koloretsu. Muinoak, baserri-bordak, zelaiak, etxeak eta etxe gehiago, Donostia ote hura? Ene! Eta ura! Ur ikaragarri pila. Itsasoa ote han gibelean hura? Itsasoa esku-eskura: urdin, berde, inoiz zurixka koloreko... Amatik behin, sukaldean salda edaten ari ginela, kontatu zidan bezalakoxea. Um! Amatik salda! Hura, bai ona! Oraintxe dingun-dangun edanen nuke. Zopako ogirik inon, bai? Baina mendi haien gibelean ageri dena salda ez, ura ote? Nola liteke? Eta gainera, gazia? Ez nuen horrenbarte ur batera ikusi, ezta imajinatu ere. Zer ote da itsaso zabalaz bertalde? Ama! Itsasorik sekula ikusi duzu, zuk?

Bianditzeko gailurretik ikusten zen paisaia zoragarriaz guztiz hordi, oihuka hasiko nintzatekeen, edo Xarpa bezala jauzika, edo beso zabalik para, ama, zu ondoan izan bazina. Hala, bago-motzak bere adarreko urak bil-bil egin eta zainetara botatzen dituen bezala, zure gorputzaren kontra estutuko nintzatekeen eta erranen nizukeen:

–Tori, ama. Nik bildutako uretik egizu tragoxka bat. Bide luzea egin dugu eta honezkero egarriturik izanen zara!

Eta zuk, zurrut eginen zenukeen nire esku ahurretik, mihiarekin azken tanta milizkatu arte.

Eta orduan, bat-batean, Bianditzeko kaskoan, Joxe ondoan nuela eta itsasoa aitzinean, amaren iduri garbi-garbia etorri zitzaidan: ama, etxe azpiko errekan, suila buruan ur garraio; ama, erreka harri zapalean indarka, kakazturiko nire barrengo arropak zuritu nahian; eta ama, erreka harri zabalean jarrita, niri begira, gozo:

–Alabatxo, hator ttiki, abarka horiek kendu eta hankatxoak putzu-zuloan freskatuko dizkinagu. Gaixoa, minberatuak ditun eta uraren premia ditun!

Badakit orduan ere, amak oinak garbituko zizkidala barrengo arropak garbitzen zizkidan bezala. Izan ere amak, nire amak, zikintzen nuen guztia erreka harri zabalean ur hotzetan karraskatzen baitzidan, ordainetan deus eskatu gabe.

Nik ordea, oraindik bederatzi urte bertzerik ez nuenez eta, beti neskame-lanetan ibilki, ez nekien zer zen hori: ordainetan deus ez ematea, alegia. Etxekoandreak legea erakutsi baitzidan: “Mesede orori erantzun bat zor zaio, norberaren borondate ona eta

ahalegina behinik behin, bai!" Eta, hitzok gogoan, "jaten ematen didanari nire lana eskainiko diot, ahal dudana behintzat, bai!" –pentsatu nuen nirekiko. Pentsatu eta egin. Hori betetzen saiatu izan naiz beti, edo ia beti.

–Hara han Jaizkibel mendia, ondoan Ulia eta ezkerrean Igeldo gaina seinalatu zituen hatzaz Joxek ni galderak egiten hasi aitzin. Erdialdean, Irun aldea, Oiartzun, Errenteria, Pasaia eta Donostia ageri ditun, eskuinetara berriz, Baiona. Ederrak bistak, eztala?

Gero niri begira-begira zela:

–Itsasorik sekula ikusi dun?

Nik buruaz ezetz.

–Aldura tontorra berriz, –jarraitu zuen hatz erakuslea ezkerretara eraginez– harako hura dun, muino soil hura, haren magalean zegon Frantziskaren borda. Ikusi dun?

Segidan zintzilik zeraman poltsa irekitzeari ekin zion:

–Gasna zatiren bat nahi? Edo pitar zorrotadaren bat?

Oraindik amaiera lekutan zegoela pentsatu nuen, baina ez nuen deus solasteko gogorik izan. Hamaiketakoa bertan egin genuen. Eta ogi-koxkorra gasna mutur batekin marruskatzen ari nintzela, pentsatu nuen inoiz amaren erretratua eta hitza galtzen banituen eta, errekan eginahalak eta bi eginagatik harrapatu ez, bada itsasora joko nuela haien xerka; aitak errana baitzidan erreka ur guztiek itsasoan bat egiten zutela. Han topatuko nuen, beraz, ama, olatu gainean dirdirka nire zain.

–Izan hadi ausart, ttiki! Egin ezan beti aitzinerat! Errekako urak itsasoraino joaten ditun! Ez diton sekulan gibelerat egiten! –erran zidan azkenekoz aitak, lau gizonen artean eraman zutenean.

Eta guk ere aitaren erranak gogoan, aitzinera egin genuen Artikutza gibelean utzita. Gainez gain aise iragan genituen gero Bunanagirre eta Zaria gainak. Errenteriako lurretan sartuak ginen jada.

Igantzik zabala. Pasaia badi. Kamamila usaina. Lurrean jarri eta, nire soineko arrea kamamila-lorez bustitzeko belar-soro aproposa. Elkarren ondoan jarri ginen biok. Hasperen egin nuen. Orduan Joxeren belaunek krak egin zuten.

–Hezurak kantari ari zaizkidan! –erran zidan irrika. Belaun hauek dantzarako baino orain hobeak zeuden hemen jarrita egoteko. Redios! –eta mahoizko galtzei tira egin zien beheiti, belaunak agerian ez uzteko.

–Otoi, abarka hauek oinetatik kentzen ahal ditut? Orpoek haize hartzen ahal dute? –erranen niokeen pozik nagusiari. Baina, ezin horrelakorik erran! Belaunak ere bistan paratu nahi ez zituen bati, nola erranen nion bada horrelakorik? Mirgin hutsa nintzela pentsatuko zuen, ezbairik gabe, eta batez ere, kalekume galanta!

Hala, abarkak oinetan, kamamila ale batzuk biltzeari ekin nion: lau, bortz, sei, hamar... Usain egin nien. Bai usain gozoa! Bat-batean ttikitako usaina etorri zitzaidan gogora, amarekin kamamila biltzen nuenekoa. Eta gero, kamamila-loredun soinekoka berriro, bizkarrean fardel eginda neramana. Baina ene! Amaren kamamila-loreak arestian bezala gorrituta ageri ziren, petaloak oro suzko.

Iraganeko zauria oraindik zorne-jario nuen.

Ez dakit zergatik, baina ttikitako gertaera hark ez zidan barne bakerik eskaintzen. Igantzi kaskoan, berriro izua neuregan jabetu zen. Erreka gorriak gainez egin izan balu bezala eta uholdea eragin, nire onetatik atera nintzen. Bat-batean Igantziko zabalean eta, Joxe ondoan nuela, dardarika hasi nintzen, hotzikarak jota, geldirik ezin egon. Ez hain zuzen ere, erixko nengoelako, Arizkungo gure etxeko deabru gorria arestian bezala, berriro ere, trufaka berekin joan nendin erranez ari zitzaidalako baizik. Infernuko Patxi hezur-haragitan! Bistan da zer gertatzen ari zen: ate azpiko erreka gorri hura, deabruaren isatsa bailitzan, isekaz eta harengana inguratzeko keinu eginez ari zitzaidan. Lotsagabe halakoa! Nola liteke, baina? Deabru zipotzak isats muturra niri zuzentzen zidan gainera, nirekin egon nahi zuen, ni eramanez nahi ninduen. Utikan! Ospa! Alde! Itzal gorriak sardea hartu zuen eskuetan, baina ez puskatuta nituen galtzerdiak niri josteko, min emateko baizik. Horregatik hasi zitzaidan zilborrean zuloak eginez zizti-zazta, arrenkurarik gabe eta, sabelean, latsagorriak margotuz, inongo mapetan ageri ez ziren bidexkak niretzat labirinto zirela. Hura mina! Hura oinazed! Erruki bedi norbait nitaz! Gero, sabeleko mina baretu zitzaidanean eta, arnas hartzerik izan nuenean, atzera ama ikusi nuen; nire ama, lurrean etzanik, erreka bihurtuta. Eta ondoan, adats itxurako zerbait, adats beltz eder hura aitzurrekin moztu eta, lurrean botata, suge bihurtuta, sugetuta, pozoitan blai.

Egun hartan, amari listua bota zion masailera buru egiten zuen gizonak, eta gero, tximetatik heldu zion zakar. Ama lepotik atxikia zuela, aitzur bana hartu zuten hiru gizonak. Ezin nuen gehiago eta, une batez, begiak estali nituen. Ni, aitak agindu bezala, armairu zuriaren barruan ezkutaturik nengoen, txintik atera gabe. Armairu

zuriaren barruan dena zen ilunpe. Arnas hartzea ere kostatzen zitzaidan. Baina amaren aiene gordina ez dut sekula ahantzi.

Gero, hiruren artean ilea moztu zioten eta biluzten saiatu ziren, baina ez zuten lortu. Izan ere, amak umetxo bat zeukan barruan, nire anaia edo ahizpa izango zena, eta sabela lodi-lodi eginda zeukan. Tiraka aritu arren ezin izan zioten kamamila-loredun soinekora erantzi.

Orduan amorruren amorrutik hiruretan gazteenak honako hauxe oihukatu zuen:

–¡No queremos más bastardos!

Eta ostiko batez lurrera bota zuen. Ama nirea, adatsen ondora, zerraldo lurrera erori zen, konortea erabat galdua zuela.

–¡Hombre, ya vale! –agindu zion bizar-gorriak gazteari–. No quiero problemas.
¡Basta por hoy!

Eta ama sukaldeko zolan utzita alde egin zuten hiru gizonak elkarrekin solasean, ostatutik atera balira bezala.

Armairu zuritik atera eta, irakiten hasi berria zen pertzari begiratu nion zer egin jakinki ez eta. Kedar gaineko armiarma hantxe zegoen oraindik, tximiniaren babesean, gertatzen ari zenari so, lekuko ia bakar.

–Ama, iratzar zaitez, abudo! Ura irakiten hasia da, zer prestatu behar dugu afaritarako? Ama, ernatzeko! Amaaaa! –oihukatu nion geroz eta zakarrago, estutasuna nagusi.

Orduan, egurrezko aulkitxo hartu, goititu, ilar gorrien potoa eskuetan hartu, tapakia zabaldu eta, ohikoan lez, hiru eskukada bota nituen pertza barnera. Gero, bertze eskuaz, bekokiko izerdia kendu nuen eta, lurrera eroritako bi aleak jaso nituen mahai gainean txukun-txukun uzteko.

–Ama, iratzartzeko! Mugitzeko behingoz! Kasu egiteko, ama!

Eta burua laztandu nionean eta biloak mentx, hura nire ama ez zela pentsatu nuen. Gero, astinaldi bat eman nion bizkarrean eta, soinekotik tiraka hasi nintzaion. Tiraldi harekin ez dakit soinekora nolatan ez zen puskatu, alajaina! Baina hori eginagatik ere kasurik egiten ez zidanez, zalantzatan ibili nintzen: bere gainean lo-kuluxka bat egin, edo pertza zaindu. Zer afalduko genuen, gainerakoan? Alabaina, akiturik nengoen eta, bere begitartearen kontra etzatera nindoala, hezetasuna sumatu nuen amaren izterretan. Hezetasun arraro bat.

–Ene! Amak ez du soineko gorririk, eta kamamila loredun soinekoa gorritzen ari zaio! –garrasi egin nuen oihartzunik gabeko sukaldean.

Kamamila zuriaren petaloak gorritu eta gorritu ari ziren: hasieran petaloak; gero, erdiguneko lili horiak; ondoren, zuztar eta hostoak oro. Ohartzerako, soinekoa gorrituriko belar-soro bilakatu zen, luzaroan euririk egiten ez duenean baino gorriago eta soilduago zegoen, ezbairik gabe. Gero, segidan, amaren hanka tartean, errekatxo bat ikusi nuen, hura ere gorri-gorria. Nora jo? Zer egin? Nondik hasi? Korrika, arnasestuka, iluna gainean eta munduan bakarrik, Egi-ederrera jo nuen auzokoengana laguntza eske.

Bihotz taupadak nire onera etorri zitzaizkidanerako, atari bete jende zegoen eta, denek erruki aurpegiz begiratzen zidaten. Ez nintzen konturatu sagarroia mandioko atean kukuka ari zitzaidanik.

–Ez zaitetz barnera sar, Karmen, zato nirekin! –erran zidan Egi-ederreko Korok begiak blai zituela–. Gure etxerat atzemanen zaitut!

Eta sukaldeko ate azpitik, Arizkungo gure ate azpiko zirikitutik, errekatxo gorria ikusi nuen, niri segika ariko balitzait bezala. Gero, banabar erre usaina ailegatu zitzaidan, ate azpitik hori ere, eta! “gatzik ez diot bota, gatza botatzea ahantzi dut” pentsatu nuen nire baitan.

Igantzioko zabalean Joxe eta biok elkarren ondoan jarrita geundela eta iratze egiten aritu behar ez, irudimenak eskapo egin zidan; ihes benetan une lazgarri hura egiazki bizitzen ari nintzela sinesteraino. Izua sentitu nuen gorputz osoan, astinaldi ikaragarria, eta mina ere bai sabelean, mina hezurretan. Hortzak elkarri kaz-kaz joka ari zitzaizkidan, eta ez zuen hotzik egiten. Eguzkia gainean genuen, Joxeren erlojuak laster eguerdi zela agintzen zuen. Hobe genuen, baina, handik martxa egitea. Hobe genuen, zutitu eta ibilian hastea. Joxek eta biok lehenbailehen handik alde egin beharra genuen. Ospa handik! Noranahi! Edonora!

–Joxe, goazen abudo! Aldurara behila iritsi behar dugu! –eskatu nion erabat urduri.

Amaren erreka gorria ezin nuen burutik kendu: ez orduan, ezta orain ere, sei urte beranduago ere. Ametsetan irudi hura maiz ateratzen zait eta izerditan iratzartzen naiz.

Hura gertatu eta, ondoko egunetako batean, gaez, zalgurdi batean eraman ninduten Arizkunik Elgorriagako amatxirengana, gerratik ihesi, aitaren sorterrira. Amatxik erakutsi zidan botoiak josten eta nire burua maitatzen.

Geroztik, horregatik, amarekin solasean egoteko beti aukeratzen ditut kolore gorriak gabeko errekak eta landaretza berdea dutenak: erreka argiak, distira darienak eta eguzki printzak zulatzen dituenak. Han topatzen dut amaren erretratua niri begira beti lanean ari.

Halako batean, Joxeren eskua nirearen gainean sentitu nuen, epel-epel. Eta harridura aurpegiz begiratu zidan:

–Zer dun, neska? Jainkoagatik! Hago lasai, ez estutu! Heldu gaitun! Lizar artean ageri den huraxe dun Aldura! Parez pare dinagu borda, beno, Gipuzkoan baserria erraten zioten, zuri-zuria! Karobia din bertan eta... Polita, ezta?

Eta gero, kokotzako bizarrari tiraka ari zitzaiola jarraitu zuen:

–Uste dinat zerri, ardi eta azienda nahiko badela hemen. Eta sagardia? Ikusi dun han goiti sagardia? Pitarrik behinik behin ez zain faltako!

Joxek orduan karkaxa lurrera bota zuen hainbertze hitz egitearen ondorioz, eztarria lehorturik balu bezala.

–Kamamila honek mendiko usaina din, ezta? Luixaren amak sarritan hemendik bilduta eraman izan din gurera. Sortetxeak tira egiten baitin, zera, tira...

–Bai, hala da –erantzun nion labur, zerbait errateagatik, horrezaz oso gutxi nekien arren. Urrutian gelditzen zitzaidan niri Arizkun.

Joxek halere, inoizka bezala, solasean aritzeko gogoz jarraitzen zuen:

–Hor bertan zegon Elur-zuloa, Karmen, hortxe zegon! Patar ttiki hori goititu eta bago haien kontra. Luixaren amak martxan ezagutu omen zinan, eta, iratzez estalita Errenteriarra edo Donostiara eramaten omen zitenan elurra zanpa-zanpa eginda. Alajaina! Bidaia zegon ba haraino! Lan txarra hori, zera hori, oso txarra, kontrabandoa bezala, gauez egin beharrekoa. Hori bai, hemen karabineroen beldurrik ez; gainerakoan, zer erranen dinat ba! Zer dion? Ongi isilik hago! Zer, orduan, bagaitun? Abiatuko gaitun?

“Karabinero” hitza entzun ordu, begiak zabal-zabal bekaineraino ireki nituen.

Elgorriko gure amaxik karabinero, erreketek, txapelgorri, falangista, frankista... denak igualak zirela erraten zuen, denek egin zutela gure kontra, nazionalisten aurka, eta auskalo zeinek edo agian denek elkar hartuta, egingo ziotela tiro bere semeari, 1938ko abenduaren 15ean Elizondoko Perotxena etxearen ingurumarietan atzeman

baitzuten gure aita tiro arrastoak zituela. Amatzik aitortu didanez, hiru egun negarrez eman omen zuen eta semearen gorpua ikusteko ere ez omen zen gauza izan. Indarrik ez. Eta amorrua galanta.

Gertaera hartatik sei urte pasa dira. Orain, amatxi tronbosiak jota ezinduta dago, eta gaixoak ez du nahi nik orain hala ikusterik. Horregatik, Oruneko bordara neskame bidali ninduen, bizitza hobegoaren bila. Gero, zoriak ekarri nau hona, Aldurara.

–Ixtanteko gaitun! Abiatu aurretik lehendabizi abarka berriak jantzi behar ditun –erran zidan Joxek.

Eta lepoko korapiloa atzazal muturrarekin bueltaka askatu zuen, karameluari papera kentzen zion bezala.

Aldurako elur-zuloa eta Igantziko zabala gibelean utzi eta, Joxe eta biok, pagadian barrena, isilik egin genuen baserrirako bidea, okil beltza iharturiko oinen atzean habi egiten ari zitzaidala zizta eta zazta.

–Sar hadi barrura, neska, honezkero gosetua eta nekatua egongo haiz eta! – zuzendu zitzaidan Frantziska Gipuzkoako hizkeran.

Aldura atarira heldu eta ezker-eskuin begiratu bat bota ordu, berehala eraiki nuen hango nire erretratu berria: banekien etxea ipar eta hego, bi puska egina zela eta, ingurumarian nituen zortzi haurrak Sebastian eta Jazintarenak behar zutela izan; banekien artean mendi punta hartara argindarra iritsi gabea zela; banekien hain sagardi handia bazen, dolareren batek behar zuela izan, han nonbait. Halaber, Nikolaxa atariko aulkian eserita ikusi ordu, jakin nuen zaharra zaintzea izanen zela nire egitekoa, hanpaturik baitzituen gaixoak oinak eta, atzazalak mozteko premia. Bost minutu nahikoa izan nuen hura guztia jasotzeko.

Gero, Joxe, sukaldeko aulki zurian jarri eta patxadaz, solasean hasi zen. Denak mutu ziren nire nagusiak zer erran zain. Sukaldean, eulien burrunbaz gain Joxe baizik ez zen entzuten ahal.

–Karmen din izena, Frantziska, –zuzendu zitzaion besa-zurten ederreko emakumeari–. Karmen Mikelarena. Amaiur, Arraioz... hor nonbaitekoa dun, Belate aldekoa behintzat. Elizondoko Mixerikordia etxetik jaso izango dun, noski... Bederatziren bat urte izango ditin. Fina eta erranekoa dun eta, lanean ongi aritzen dun. Ez da hala? –galdetu zidan Joxek.

–Bai –egin nion buruaz nik.

Eta gero, aurkezpenarekin jarraitu zuen, belarri denak erne-arrario zituela:

–Garbia zegon, gainera. Atzo Luixak, hire lehengusuak, ilea ongi begiratu zionan, eta zorririk ez din, ale bakanik ere!

Eta Karmenek bere bi begi txikiak lurretik ozta-ozta jaso zituen adin guztietako eta kolore guztietako begiak hari so zituelako.

–Ederra neska motza! –erran zuen Frantziskak, ongi-etorria emanez.

Eta guztiek irri egin zuten.

–Mokadu bat prestatua dugu zuentzat! –hitza hartu zuen Nikolaxa zaharrak bere aulkitik bertatik jatekoa luzatzen zuela–. Txorizo edo urdai muturren bat nahi? Gazta zatiren bat bestela? Tira ez egon hor begira, jan ezazue, jan! Aranatz han dago, e, lekutan! Ez haiz makala, neska!

Eta gero Joxerengana zuzenduz:

–Hi Joxe, probatu beharko duk aurtengo sagardoa! Etorria zegok! Ea zer iruditzen zaian! Jan gazteak, jan!

Karmenek ez zekien nondik hasi, ez zekien nola erran, baina ahopeka beldur antzean bada ere, solas egitera ausartu zen:

–Lehendabizi errekarra joan nahiko nuke oinak txukuntzera. Bada harri zabaleko errekarik hemen?

Entzuten ari zirenek hori bai ez zutela espero! Baina halere, zortzi haurrak batera hasi ziren hizketan erreka non zegoen adieraziz.

Halako batean, neskatoak alde egin bezain pronto, Lino arnasari buelta ezin emanez sartu zen sukaldean. Begi denak oraingoan ate alderantz begira zuzendu ziren.

–Kaixo Joxe! Ba al gaituk? Ongi Aranatz alde horretan? –mintzatu zitzaion Frantziskaren senarra.

–Bai –erantzun zion bisitariak.

Eta etorri berriak eskua luzatu zion bortzekoa emanez.

–Motel, motel! –jarraitu zuen iritsi berriak– . Erotuta ibili nauk! Ardi guztiak arkara eta aharia falta! Kabroi zikina, falta! Epixkarko ardiekin alde egina izango duk! Badakik zer pasatzen den: urrutiko intxaurrak hamalau eta bertara joan eta lau! Eta, naparra? Non duzue? Ekarri al duk neska naparra?

–Bai. Hankak txukuntzera Dontzella iturrira jaitzia duk! –ihardetsi zuen gidari lanetan jardundakoak.

Etorri berria ez zegoen isilik egoteko, eta ezpainak irribarre keinuz zituela gaineratu zuen:

–La ospeda! Aski txukuna duk! Txukundade premi galanta baziok ba hemen.
Alajainetan!

Eta sukalde osoa marmar batean jarri zen eltzearen tapa dantzan hasi berri zela.

Bien bitartean, neskatoa belar-soroan beheiti abiatu zen erreka bila. Inor begira ez zuela ohartzean, zatak laxatu, zulaturiko galtzerdiak abarka barruan ongi gorde eta, oinutsik egin zuen errekarako bidea.